

# EUSKALKIEN ERABILERA ADMINISTRAZIOKO

## 1. ETA 2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNETAN

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik zuzendutako eskariari erantzunez, Euskaltzaindia proposamen hauetara iritsi da:

### 1. AITZIN-OHARRAK

1.1. Euskaltzaindiari ez dagokio euskalkiak bai ala ezko iritzia ematea. Hori Administrazioak erabakia du. Hala ageri da Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Euskaltzaindiari txostena eskatuz egindako idazkian: “lehenengo eta bigarren hizkuntza eskakizunetara aurkeztuko diren herri-langileek azterketa egiterakoak euskalkiren bat aukeratuko balute, zer-nolako hizkuntza arauak gorde beharko lituzketen ortografia eta morfosintaxiaren alorrean zehaztea”. Beraz, euskalkiren bat aukera dezakete azterketa egileek.

Eta hori, abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuak dioenean oinarritzen da. Hala baitio dekretu horren hirugarren atalak: “Aldi berean, lehenengo eta bigarren hizkuntza eskaizunei dagokienez, saio horietarako, egun bizirik dauden euskalki guztiak hartuko dira kontuan, Euskaltzaindiaren txostena jaso ondoren, HPINk honi buruz emandako erabakiaren arabera”.

1.2. Eduki zehaztea ere ez da Akademiaren zeregina. Ezen euskalkiari egokitua izan arren, 1. eta 2. mailako hizkuntza eskakizunerako eskatzen den programa berbera eskatuko balitzateke. Egitarau hori, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuak, Euskal Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan Euskararen Erabilera Normaltzeko Plangintza arautzen duenak, bere eranskinean egiten duen hizkuntza eskakizunen zehaztapena kontuan hartuz egin da, eta Erabakia, HPINrena, 1. eta 2. (3. eta 4.) hizkuntz eskakizunei dagozkien egitarauak ezartzen dituena, 1990eko uztailaren 5koa da.

1.3. Adierazitako baieztapenak oinarritzerakoan, Euskaltzaindiak 1979ko martxoaren 30ean egin zuen “Euskara Batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak” izeneko adierazpenean eskatzen zuenera jo da (Ikus *Euskera* XXIX (2. aldia), 103-106 orr.).

a) Ortografia: guztiz zehatza da Euskaltzaindiaren adierazpena kontu honetan: ortografia bakarra erabili behar da bai batuan bai euskalkietan. Honako hau da, hitzez hitz, aipatu adierazpenak dioena:

“Ortografia bakarra: Ortografia zaintzearen ohar horrek ez du esplikazio handirik behar. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza osoaren ortografia bat onartu denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili beharra dela bai euskalkietan eta bai euskara batuan ere”.

Ez dira, bada, arrazoizko inoiz entzun ohi diren argudioak: «Euskalkietan idazten denean H letra ez da erabili behar; hori baturako da». Edo, «Euskara batuan bustiduren grafiak ez dira jartzen, baina euskalkian bai», etab.

Hizkuntzaren barnean ortografia bat baino gehiago erabiltzeari kaltegarri deritza Euskaltzaindiak. Hori da, gainera, euskalkiak eta euskara batua hizkuntza desberdinak bezala jotzea.”

Beraz, euskalkiz edo tokian tokiko hizkeraz idatzitako testuetan ere bete behar dira baturako —eta, orohar, euskararako— emandako ortografia arauak, hala nola, esate baterako, txistukarien berezketa (*s/z, ts/tz*), *h*-a eta *in* batetik eta *ll, ñ* adierazkorrek bestetik, *ba-*, *bait-*, ez eta horrelakoen idazkera, mailegüei, hitz elkartuei eta zenbatzaileei dagokiena e.a. Hitz batean, Euskaltzaindiak ortografiaren batasunerako eskaini dituen erabaki eta proposamen guztiak.

Hor dago, beraz, lehen muga, idatziari lotua. Euskalkiak erabiltzen badira ere, batasunerako erabakitako ortografia zaintzea nahitaezkoa da.

b) “Hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua”.

Bigarren hau ahozkoari nahiz idatziari dagokio.

Euskararen muinari dagozkion puntuak bilduko lirateke hemen. Egia da zail samarra dela hau erabat zehaztea. Halere, Euskaltzaindiaren adierazpenean aurki dezakegu argibideren bat edo beste: “deklinabide mugagabea; *a* organikaz bukatutako hitzak; euskalki guztietan legezko den aditz jokoa eta euskal hitzurrena”.

Azken batean erabili nahi duen euskalki hori ondo ezagutzen badu, eta ondo erabiltzen, bigarren puntu honek ez luke arazorik sortu beharko.

## 2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

Euskaltzaindiaren adierazpena hizkuntz eskakizun bakoitzean eskatzen diren gaitasunekin lotzen bada:

### 2.1. *Lehen hizkuntz eskakizunak:*

Ulermena: bertako euskalkia eta batua. Euskalkia bai, baina euskara batuko testu edo mezuak (ahoz nahiz izkribuz jasoak) ulertzeko gai izan beharko luke.

Mintzamina: bere euskalkia ere arruntean —kontrakzioak barne— eta landuxeagoan jakitea, administrazioko edozein langilek bere herriko barietatean

trankil eta lasai mintzatzeko eskubidea onarturik ere, izan dezala, neurri batean bederen, euskara eredu zabalagoetara jotzeko gaitasuna.

Irakurmena: bere euskalkian eta batuan. Administrazioak ohiko idatzietan euskara batua erabiltzen duela jakinik, bidezko dirudi administrazio testuen ulermena hizkuntza eskakizun guztietan behar dela, bakoitzean dagokion maila eta neurrian.

Idazmena: bere euskalkian era landuan. Alfabetatua dagoela erakutsi behar du. Behar bada, administraziooko terminologia ez ezagutzea barka dakiok. Ulertzeko gai bada, poliki-poliki ikasiko du.

Maila honetan, beraz, batua, ulermen mailan eskatuko litzateke batik bat.

### 2.2. *Bigarren hizkuntz eskakizunak:*

Ulermena: bertako euskalkia eta batua.

Mintzamina: bere euskalkian era arruntean eta euskara batura hurbiltzen jakitea.

Irakurmena: bere euskalkian eta batuan.

Idazmena: bere euskalkian eta batura hurbiltzen jakitea.

Lehen mailakoarekin bereizkuntza, batez ere idazmenean egingo genuke. Onar daiteke bere euskalkian bakarrik berba egitea, ahoskera zainduago eskatu arren (oso laburdura gogorrik ez egitea...). Idatziz, ordea, euskara batuan egin ahal izatea ere eska dakiok. Bi maila ere berezi daitezke: idazmena hobea izatea euskalkian diharduenean, batuan ari denean baino. Dena den, erakusleen forma batuak, aditz laguntzailearenak (ohikoenak behintzat) menderatu behar-ko litzuzke.

## 3. ERANSKINA

Aztertzaile, ikasle nahiz material prestatzaileei begira honako irizpide orokor hauek jarri dira eredu gisara. Idatzian kontuan hartu beharrekoak:

3.1. Ahozkoan eta lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak ez dira idatzian onartzekoak: *zer egin behar dozu, nahi badezu, gura dot, ez dakit bada, amonaren etxean*, e.a. idatziko da, esate baterako, *ez zeinbiozu, nabezu, gurot, eztaipa, amonan etxin* e.a.

3.2. Tokian tokiko fonetismo bereziak ere ez dira idatzian eman behar: *egia, dio, burua* eta *maitea, gogoa* idatziko da, esate baterako, *ez egiya, diyo, buruba* eta *maitia, gogua*, hurrenez hurren.

3.3. Euskalkian forma bi edo gehiago erabiltzen direnean, batuarekin bat datorrena hobetsiko da: *diet* esate baterako, *ez diotet, lagunai, ez, lagunairi...*

Bestalde, tradizio idatzi gabeko bariante lokalistegiak ez erabiltzea da jokatibide egokia: *ikisi, duzti, etorri ezteko (ez etortzeko)*...

### 3.4. Deklinabideari dagokionez:

Deklinabide mugagabea eskatuko da, hori ahaztutxea duten tokietan ere: *zenbait laguni, zein etxetan*, esate baterako, ez, *zenbait lagunei, zein etxean*...

Berezko *-a* gorde egin behar da, horretan nahasi samar dabilzan tokietan ere: *gauza bat, anaia horri*, esate baterako, ez *gauz bat, anai horri*...

Baturako arautu den deklinabidea eskatuko da, oro har, euskalkien berezitasun sistematikoak ontzat hartuz hala ere *-ak* ergatibo plurala eta absolutua ez bereiztea (*Gizonak etorri dira. Gizonak egin dabe*), *ai (lagunai, beraz, ez lagunairi, lagunaidi e.a.), -akin*...

Bizkaierazko forma bereziak ontzat ematen dira: *-arekin* amaitzen diren hitzak absolutuan *-ea* egitea (*neskea*, *logurea*, *errotea*, *euskerea*...). *-gaz/kaz, -kin*. Oraindino, horregaitino, *-rentzat* eta *-rentzako/-rendako* berdin onestea. Izenordainak: *zeredozer, noredonor, edonor*... Ez dira ontzat emango, ordea, laburdurak, *aitana* eta *amana*. *Antonion semea, gizonana da (= gizonarena), gizonaz etorri da (= gizonagaz)*...

3.5. Aditz jokoan, berriz, baturako onartu diren formen ordain sistematikoak eta euskalkiko forma batutzat har daitezkeenak emango dira ontzat, ez bestelakoak: *esan nau, diotet, eman zidazun, genekigun* eta horrelakoak ez, alegia.

Bizkaieraz, bai aditz laguntzaileak eta bai sintetikoak, tradiziozko literatur eraz ematea da egokia, modu idatzian laburdurarik egin gabe: *etorri ginan, etorri zaree* edo *zarie, emango deutso, erosi geuntsazan, badaroe, hor dakarre, egin ditu* edo *dauz, gorde doguz* edo *ditugu, esan lei* edo *leike, emon geinke* edo *ginei*... Hortaz, era idatzian *ekarrikotsozu, esateban, ingogu* modukoak ez lirake onartu behar. Aditzetan bokal elkarketak gertatzen direnean: *dan, dala; direnean; leiken; geinkean*. Aspektuan: *etorri zaite, kontatu lei* (ahoz kontatu onartu arren). Aspektu *burutugabe*an marka *burutuaren* gainean: *garbituten, berotuten*. Era berean, aspektu *burutugabe*an ontzat ematekoak dira *ipinten, etorten*, etab. Iraganeko aditz laguntzaileen bukaeran: *genduan, zan, ziran*. Ahalezko adizkietan *-ke* gabe ere bai: *berak ekarri lei*.

### 3.6. Sintaxian:

*-ala* eta *-an* atzizkiak onartzen dira.

*eta* juntagailuaren ordez *ta* ere onar daiteke.

Horrez gainera, sintaxiari dagokionean, ez dugu uste ezer berezirik aipatu behar denik, euskara baturako eta euskalkietako sintaxi-zuentasuna bat bera delako. Gainera Euskaltzaindiak ez du orain arte sintaxi-mailako gomendiorik

eman euskara baturako. Hortaz, zuzenak baldin badira, egitura guztiak dira onartzekoak.

Bizkaieraz ezer aipatzekotan:

Erakuslea mugatzaile gisa ez beti atzean: *Hau mutil hau* (edo *hau mutilau*).

Denborazko perpasusetan: *-(e)an* atzizkiaren ordez *-(k)eran*: *zeredozer erosikeran*.

Helburuzko jokatu gabekoak, *-t(z)eraren* ordez *ten*: *gauza batzuk ikusten noa*.

3.7. Morfologian era dialektal tradiziodunak ontzat emango dira: Bokal alternantzietan: *barri, alkar, agiri, burruka, gitxi, emon, eroan...* Kontsonanteak: leherkariak: *parkatu, kerexa, denbora, ebaki, jagi*. Bustidura: *hatxa, bakotxa... elexa*. Kontsonante alternantziak: *edur, bedar, idar, narru, nasai...*

#### 4. AZKEN OHARRAK

4.1. Azken ohar gisa, zerbait erantsi beharra ikusi da. Izan ere, 224/1989 dekretuaren arabera osatu da txostena eta horren arabera eman gomendioak; hau da, ahozko eta idatzizko trebetasunak neurtzeko lan probak kontuan izanik.

4.2. Euskaltzaindiak, ordea, bere kezka azaldu nahi du:

1. hizkuntz eskakizunean idatzizko probak garrantzi eta pisu handiegia izan ohi duela uste baitu. Maila horretako hizkuntz eskakizuna zein lanposturi (lanpostu-motari) ezartzen zaion kontuan harturik, halako lanetan ari direnak, noizbehinka ohar labur bat edo beste idatzi beharra izaten dute. Askotan ez eta hori ere, hizkuntza mintzatua dute langai behinena. Horregatik, 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan, eta batez ere 1. mailakoan, ahozko trebetasunari eman behar litzaioke erabateko lehentasuna Euskaltzaindiaren iritziz. Eta epaimahai-koei gogorarazi erabateko zilegi dela azterkariak beren azpieuskalkian aritzea. Areago, horretara bultzatu beharko lituzke eta "euskara batua"an egin nahi eta ezinean dabilzanak. Idazmena, gero benetan zertarako eta zein neurritan behar izango duten kontuan harrurik neurtu beharko litzateke. Bestela, arrisku latza legoke, hizkuntzari dagokionez, eskatzen zaien lana euskaraz bikain egin dezakeen, baina eskolatzeko aukera handiegirik izan ez duen euskaldun zahar bat baino gehiago baztertzeko.

#### 5. BIBLIOGRAFIA

Arestian aipaturiko irizpideok areago zehazteko, honako iturri hauetara jo dezakete hizkuntza eskakizunen saioretako aztertzaileek:

1. Ortografiari dagokionez, Euskaltzaindiaren agiriak (*Euskera* agerkaria eta berariaz eginiko liburuxkak) eta horien dibulgaziorako eginiko bildumak (Eusko Jaurlaritzak argitara emandako *Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak*, esate baterako).
2. Gramatika orokorrari dagokionez, Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna* (Bilbo, 1993).
3. Bizkaierarako, Hezkuntza Sailak argitaratutako *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza* (Gasteiz, 1983).
4. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaraturiko *Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan* (Gasteiz, 1982ko urriak 22).

(Bilbon, 1994eko maiatzaren 27an hileroko osoko bilkuran onartua).